



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko azaroaren 7ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : DACHAGUER Peio.

Deialdiaren eguna : 2023ko azaroaren 3a

Afitzatze eguna : 2023ko azaroaren 3a

### **2. ERABAKIA: ARROSAKO HERRIARI EMANEN ZAION DIRULAGUNTZAREN FINKATZEA ESKOLA PUBLIKOAREN 2022-2023 IKASTURTEKO FUNTZIONAMENDUARENTZAT** (7.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Arrosako eskola publikoaren funtzionamendu kostua 11 422.08 €koa izan dela 33 ikaslerentzat, hots 346.12 € ikasle bakoitzeko, Arrosako Auzapezak adierazi duen bezala.

2022-2023 ikasturtean, Ortzaizeko 20 haur eskolaratuak ziren Arrosako eskola publikoan (Ortzaizeko CE1 mailako 2 haur Arrosan eskolaratuak astean bi egunez, eta 19 haur CE2, CM1 eta CM2 mailetan).

Ondorioz, Auzapezak Herri Biltzarkideei proposatu die, Ortzaizen bizi diren eta Arrosako eskola publikoan eskolaratuak diren haurrentzat funtzionamendu dirulaguntza baten onartzea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak,

**ERABAKI DU**, 2023rako, 6 922.40 €ko dirulaguntza ematea Arrosa herriari.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.  
Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko azaroaren 7an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/11/14an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/11/14an.